

Eibarko Udalak programazioan inguruko tailer teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Bideojokuak sortzen ikasiko dute Unity eta Maya3D plataforma erabiliz, haurren intelijentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

**Tramitatzailea:** Haurreria eta Gazteria

**Hartzaileak:** DBH-ko ikasleentzat

**30€** (Eibarren erroldatuak)

**50€** (Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Nork emango du:** DOPLAY

**Non:** Indianokua gaztelekua

**Datak:** abenduak 26, 27 eta 28

**Ordutegia:** 09:30etatik 13:30etara.

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Eskaera egiteko epea:** abenduaren 10etik 17ra

**Ikasle kopurua:** gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 15 ikasle.

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

## Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura) eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

## Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)), **abenduaren 20an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **abenduaren 20an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean ([www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)), egongo da **abenduaren 20an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan